ALKIZAKO UDALA

**UDALBATZARRAK 2021eko IRAILAREN 28an EGINDAKO OHIKO 8BILKURAREN AKTA**

2021eko irailaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

| | |
|---|---|
| ALKATEA : | Inaki Irazabalbeitia Fernandez |
| ZINEGOTZIAK : | Jose Mª Aranzabe Urruzola |
| | Unai Sorarrain Urruzola |
| | Koldobika Jauregi Zinkunegi |
| | *Gillermo Jesus Otegi Zubillaga* |
| | *Concepcion Soria Legua* |
| | *Shrabani Aranzabe Pita* |

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

**1. Aurreko bilkurako aktan onespena.**
**✓ 2021eko uztailaren 27an egindako ohiko bilkuraren akta.**
**2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
**3. Fakturak eta ordainketak.**
**4. 2022 urterako udal ordenantza fiskalak eta udal zerbitzuengatiko tasa eta prezio publikoen ordenantzak onartzea, hala bada.**
**5. Tolosaldeko hiltegiko mankomunitateari 2021 urteri dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
**6. Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2021eko 3. Eta 4. Hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
**7. I.A. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
**8. Alkizako herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzaren oinarrien onespena, hala bada.**
**9. Etxaunberritik-Apaiztegira ur-hargunea berritzeko lanen esleipena, hala bada.**
**10. Alkizako Herri ostatuan aroztegiko lanen esleipena (3 leiho eta ate berri bat jartzea), hala bada.**
**11. Alkizako Herri ostaturako edarien erakustokiko armairua eta altzairu herdoilgaitzezko lan-mahai bat erosteko kontratua esleitzea, hala bada.**

**12. Larraulgo Udalak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
**13. Beste batzuk.**
**14. Mozioak, erreguak eta galderak.**

.../...

***LEHEN PUNTUA***
**AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA**

- 2021eko uztailaren 27ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

***BIGARREN PUNTUA***
**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 126/2021etik 180/2021ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

***HIRUGARREN PUNTUA***
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

| | |
|---|---|
| OSCAR GALINDO | 121,00 |
| GILBE | 58,45 |
| OTIS | 443,44 |
| EDURNE BENGOA | 302,50 |
| DIONISIO ORMAZABAL | 10,04 |
| DIONISIO ORMAZABAL | 4,78 |
| DEKOARBERAS | 47,15 |
| CALPARSORO INDUSTRIAL | 82,93 |
| MAQUELSA | 40,52 |
| EBA ERKIZIA | 1.319,21 |
| ARGITU | 183,42 |
| SOLRED | 63,25 |
| MOVISTAR | 2,50 |

| | |
|---|---|
| CURENERGIA | 16,82 |
| NORTEGAS | 14,85 |
| IZADI | 152,94 |
| NORTEGAS | 175,50 |
| NORTEGAS | 79,45 |
| GOIENER | 55,06 |
| GOIENER | 67,23 |
| GOIENER | 47,78 |
| GOIENER | 606,96 |
| GOIENER | 15,82 |
| GOIENER | 40,58 |
| GOIENER | 169,07 |
| GOIENER | 13,22 |
| GOIENER | 196,64 |
| GOIENER | 88,61 |
| GOIENER | 280,31 |
| TOLOSALDEA GARATZEN | 362,00 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 519,48 |
| ANTXON IRAOLA | 35,15 |
| EGIMENDI | 46,95 |
| EGIMENDI | 4,04 |
| EUSKAL-HOTZ | 94,38 |
| GARAJE IBARRA | 226,72 |
| AKETEGI | 13,00 |
| QUISER | 266,45 |
| GUREAK | 1,45 |
| OSCAR GALINDO | 121,00 |
| SOS FIRE | 217,20 |
| DIONISIO ORMAZABAL | 11,69 |
| ARGITU | 166,11 |
| KEY-LAN | 11,66 |
| SOLRED | 66,51 |
| LAVANDERIA LIZARRA | 290,64 |
| EUSKAL-HOTZ | 5.394,18 |
| GOIENER | 45,17 |
| GOIENER | 9,65 |
| GOIENER | 4,69 |
| GOIENER | 44,69 |

ALKIZAKO UDALA

| | |
|---|---|
| GOIENER | 99,56 |
| GOIENER | 759,09 |
| GOIENER | 25,23 |
| GOIENER | 21,24 |
| GOIENER | 60,73 |
| GOIENER | 13,70 |
| GOIENER | 20,92 |
| GOIENER | 98,49 |
| GOIENER | 63,43 |
| GOIENER | 213,11 |
| GOIENER | 18,93 |
| QUISER | 39,69 |
| ORANGE | 20,15 |
| MOVISTAR | 54,45 |
| EBA ERKIZIA | 1.318,90 |
| NORTEGAS | 24,62 |
| NORTEGAS | 6,35 |
| NORTEGAS | 6,35 |
| IMPORT-QUIMIA | 389,20 |
| BERRI LANTEGIA | 17,40 |
| GOIENER | 209,40 |
| GOIENER | 336,15 |
| ALETEGO | 20,60 |
| IZADI | 2.855,60 |
| EGIMENDI | 11,50 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 67,15 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 56,88 |
| KUKU-LORE | 15,30 |
| OSCAR GALINDO | 121,00 |
| NAFARKOOP | 2.070,81 |
| EBA ERKIZIA | 2.000,81 |
| ORANGE | 214,49 |
| GUREAK | 8,52 |
| KUKU-LORE | 55,62 |
| MAQUELSA | 17,53 |
| CALPARSORO INDUSTRIAL | 106,90 |
| TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA | 217,80 |
| GARRA | 1.518,07 |

ALKIZAKO UDALA

| | |
|---|---|
| MAQUELSA | 33,20 |
| TOKIKOM | 592,90 |
| EBA ERKIZIA | 505,71 |
| IRAUGAR | 5.292,30 |
| IRAUGAR | 9.545,99 |
| IRAUGAR | 5.374,15 |
| MARIA GARMENDIA | 800,00 |
| MAIALEN LUJANBIO | 271,46 |
| AITOR MENDILUZE | 271,46 |
| SEBASTIAN LIZASO | 271,46 |
| SEBASTIAN LIZASO | 271,46 |
| XABIER LUR LANAK | 363,00 |
| CARPINTERIA ATARI | 84,70 |
| KIMUA | 3.000,00 |
| FONTANERIA ANTZIETA | 263,89 |
| ANTONIO ELOSEGUI | 245,41 |
| FONTANERIA ANTZIETA | 536,21 |
| DIONISIO ORMAZABAL | 10,33 |
| ARGITU | 226,84 |
| SOLRED | 61,80 |
| SOLRED | 61,60 |
| NORTEGAS | 39,89 |
| JULEN H. ALTZELAI | 633,63 |
| ORANGE | 20,15 |
| GOIENER | 24,81 |
| GOIENR | 4,50 |
| GOIENER | 19,05 |
| GOIENER | 43,40 |
| GOIENER | 14,59 |
| GOIENER | 15,69 |
| GOIENER | 58,87 |
| GOIENER | 50,49 |
| GOIENER | 27,46 |
| GOIENER | 182,62 |
| GOIENER | 255,96 |
| GOIENER | 41,01 |
| GOIENER | 26,98 |
| QUISER | 162,01 |

| | |
|---|---|
| GOIENER | 207,19 |
| GOIENER | 101,18 |
| GOIENER | 818,66 |
| SGAE | 24,13 |
| SGAE | 265,55 |
| TOLOMENDI | 931,35 |
| IZFE | 38,66 |
| IZFE | 1.985,57 |
| EUSKAL-HOTZ | 295,24 |
| EUSKAL-HOTZ | 163,96 |
| ORANGE | 216,73 |

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **60.581,62** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

***LAUGARREN PUNTUA***

**2022 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUENGATIKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA**

*Concepcion Legua eta Gillermo Otegi zinegotziak 19.27 orduan bertaratzen dira Udalbatza honetara.*

Ikusirik 2022 ekitaldirako Ordenantza Fiskal eta Tasa eta Prezio Publikoen udal ordenantzak eguneratzeko eta aldatzeko, egindako ondorengo proposamena:

# 1.ZERGAK

## 1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

### 2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK:

- Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,2.
- Gainerako hiri ondasun higiezinei aplikagarri zaien karga tasa: %0,22.

- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,9.

**TARIFAK IGOTZEA PROPOSATZEN DA**

**2022 URTEAN INDARREAN EGONGO DIREN TARIFAK:**

- Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,22.
- Gainerako hiri ondasun higiezinei aplikagarri zaien karga tasa: %0,2.
- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,99.

**2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK**

| | |
|---|---|
| - Famili Ugariak (3 ume edo gehiago) | % 30. |
| - Eguzki aprobetxamendu termiko sistemak | %25. |

**HOBARI HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA**

## 2. EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGA

**2021 URTEAN INDARREAN EGON DEN KUOTA:**

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntza-koefizientea %1,70 izan da

**KUOTA MANTENTZEA PROPOSATZEN DA**

Ez dago hobaririk onartuta.

## 3. TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

**2021 URTEAN INDARREAN EGON DEN KOEFIZIENTEA:**

ALKIZAKO UDALA

Gaur egun % 1,70 koefizientea aplikatzen da

KOEFIENTEA ALDATZEA PROPOSATZEN DA

**2022 URTEAN INDARREAN EGONGO DEN KOEFIZIENTEA:**

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxieneko koefizientea %1,72 izango da

**2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK**

- Bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra indarrean dagoen legeriaren arabera-maila orokorreko edo maila bereziko familia ugariko kidea bada, hurrenez hurren: % 50.

-Zerga-kuotaren %50eko hobaria, ibilgailu hibridoetan.

-Hobari hau %95ekoa izango da, motor osoa elektrikoa dueten ibilgailuen kasuan.

HOBARI HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

| **Ibilgailu mota eta potentzia** | **2021** | **Koefizientea** | **2022 Proposamena** |
|---|---|---|---|
| A)**Turismoak:** | | | |
| 9 zaldi fiskal bitartekoak | 30,65 | %1,72 | 31,63 |
| 9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak | 61,30 | %1,72 | 63,26 |
| 12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak | 102,17 | %1,72 | 105,44 |
| 14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak | 143,03 | %1,72 | 147,61 |
| 16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak | 183,90 | %1,72 | 189,78 |
| 20 zaldi fiskaletik gorakoak | 224,77 | %1,72 | 231,96 |
| B) **Autobusak:** | | %1,72 | |
| 21 plaza bitartekoak | 141,61 | %1,72 | 143,28 |
| 21 - 50 plaza bitartekoak | 201,70 | %1,72 | 204,06 |
| 50 plazatik gorakoak | 252,11 | %1,72 | 255,08 |
| C)**Kamioiak:** | | %1,72 | |
| 1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria | 71,88 | %1,72 | 72,72 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1.000 - 2.999 kg. bitarteko | 141,61 | %1,72 | 143,28 |
| 2.999 - 9.999 kg. Bitarteko | 201,69 | %1,72 | 204,06 |
| 9.999 kg-tik gorako | 252,11 | %1,72 | 255,08 |
| D)**Traktoreak:** | | %1,72 | |
| 16 zaldi fiskal bitartekoak | 30,04 | %1,72 | 30,39 |
| 16 – 25 zaldi f. bitartekoak | 47,20 | %1,72 | 47,76 |
| 25 zaldi fiskaletik gorakoak | 141,61 | %1,72 | 143,28 |
| E)**Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak**: | | %1,72 | |
| 750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria | 30,04 | %1,72 | 30,39 |
| 1.000 - 2.999 kg. Bitarteko k.e. | 47,20 | %1,72 | 47,76 |
| 2.999 kg.tik gorako karga e | 141,61 | %1,72 | 143,28 |
| F)**Gainerako ibilgailuak:** | | %1,72 | |
| Ziklomotoreak | 7,51 | %1,72 | 7,75 |
| Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak | 7,51 | %1,72 | 7,75 |
| Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek | 12,87 | %1,72 | 13,28 |
| Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek | 25,75 | %1,72 | 26,57 |
| Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek | 51,50 | %1,72 | 53,15 |
| Motozikletak 1.000 cctik gora | 103,00 | %1,72 | 106,28 |

## 4.ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

### ONDORENGO HOBARIAK APLIKATZEN DIRA:

**Ondorengo hobaria mantentzea proposatzen da:**

1. %50-eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

-Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.
-Mugikortasun baremoan, gutxienez 7 puntu izatea

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duen pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo berezita aurkeztea helburu duten obren zatian.

2. Abelgorrientzako estabulazio berriak eraikitzeak eta baita ere Udal Planeamenduko AA.SS.etako katalogoan sartutako eraikuntzak berritzeko eta birgaitzeko obrak, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren txosten baimenean bildutako baldintzak garatuz babestuko diren elementu berezietan egin daitezkeen jarduerak helburu dutenak. Zerga kuotaren % 95eko hobaria izango dute.

**Ondorengo hobaria Kentzea proposatzen da:**

3.-%50eko hobaria, baldin eta eraikuntza instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira(zati horretan). Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea.

**2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK**

**a) Nekazaritza-Abeltzantzako esplotazio munduari lotutako ekitaldi, eraikuntza, obra benetako kostearen % 2,50. Onuradun izateko nekazaritza ustia lekuen erroldatze agiria aurkeztu beharko du.**

**b) Babes Ofizialeko etxebitzitzak. Benetako kostoaren : %2,5**

**c)Besteak: %5**

**TIPOAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA**

## 5. HIRILURREN BALIOEN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

**2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK:**

Portzentaiak:

a) 1 urte 5 urtera bitarteko %3,6
b) 10 urte artekoa %3,4
c) 15 urte artekoa %3,1
d) 20 urte artekoa %2,9

Karga Tasa: % 6,50 da eta ezin du % 10ª gainditu

**TARIFAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA**

# 2. TASAK

## 1. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

**2021 URTEAN INDARREAN DAUDEN TARIFAK**

### 2.1.1. UR-HORNIDURAREN ZERBITZUA:

| UR HORNIKETA | 2021 |
|---|---|
| **1.1. Etxez-etxeko ur hornidura** | |
| -Gutxieneko 45m3, sei hilabetea | 15,00€ |
| -Seihilabeteko 45 m3 gutxienekotik aurrera | 0,45€/m3 bakoitza |
| | |
| **1.2. Udalerritik kanpo kokaturiko eraikinetako ur hornidura:** | |
| - M3 bakoitza | 0,95€ |
| | |
| **1.3.- Mantenimendu kuota, seihilabeteko** | **18,00€** |
| | |
| **1.4.- Ondakinen isurketen kuota** | |

| | |
|---|---|
| **(Plazako auzoa)** | Ur erreziboaren % 36a |
| **Hobariak: Gizarte ongizateak proposatuak** | Ikus I. eranskina |

**2022 URTERAKO PROPOSAMENA:**

## 2.1.1. UR-HORNIDURAREN ZERBITZUA:

| UR HORNIKETA | 2022 |
|---|---|
| **1.1. Etxez-etxeko ur hornidura** | |
| -Gutxieneko 40m3, sei hilabetea | 16,00€ |
| -Seihilabeteko 40 m3 gutxienekotik aurrera | 0,62€/m3 bakoitza |
| **-Nekazal ustiategiak: UTA** | 0,4€/m3 bakoitza |
| | |
| **1.2. Udalerritik kanpo kokaturiko eraikinetako ur hornidura:** | |
| - M3 bakoitza | 0,96€ |
| | |
| **1.3.- Mantenimendu kuota, seihilabeteko** | **18,00€** |
| | |
| **1.4.- Hondakinen isurketen kuota (Plazako auzoa)** | 35€/sei hilabete |
| **Hobariak: Gizarte ongizateak proposatuak** | Ikus I. eranskina |

## 2.1.2.ZABOR BILKETA ZERBITZUA:

### 2021 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK

| ZABORRAK | 2021 |
|---|---|
| | |
| 1.1.Etxez-etxeko bilketa, hileko | 16,00€ |
| | |
| 1.2. Industria, komertzio eta taberna bilketa, hileko | 29,00€ |
| Hobariak: Gizarte ongizateak proposatuak | Ikus I. eranskina |

TARIFA HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

## 2.1.3. DOKUMENTU ADMINISTRATIBOEN IGORPENA

| | 2021 |
|---|---|
| ➢ Animali arriskutxuen inskripzioa | 30,00€ |
| | |
| ➢ Hirigintz kontsultak | 70,00€ |
| | |
| ➢ Segregazio baimenak 5 partzela arte | 75,00€ |
| | |
| ➢ Segregazio baimenak 6 partzelatik gora | 150,00€ |
| | |
| ➢ Lehen erabilera baimenak | 100,00€ |
| | |
| ➢ Lur mugimendu baimenak | 0,40€/m3 bakoitza |
| | |
| ➢ 60.000 € baino gutxiagoko aurrekontua duten obretako lizentzien izapidetzea | 55,00€ |
| | |
| ➢ 60.000 € baino gehiagoko aurrekontua duten obretako lizentzien izapidetzea | 75,00€ |
| | |
| ➢ Iharduera baimenak: | |
| - Klasifikatutako jarduera | 150,00€ |
| - Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa | 80,00€ |
| | |
| ➢ Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena | Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren % 200 |

ALKIZAKO UDALA

TARIFA HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

## 2.1.4.DON JUANENAKO KIROL GELAREN ERABILPENA:

| | 2021 |
|---|---|
| | |
| ➢ Don Juanena etxeko kirol gela: urteko bazkidetza | 60,00€ |
| | |
| ➢ Don Juanena etxeko kirol gela: hiru hileko bazkidetza | 20,00€ |
| ➢ Don Juanena etxeko kirol gela: hileko bazkidetza | 10,00€ |
| | |
| ➢ Don Juanena etxeko kirol gela: eguneko tasa | 2,00€ |
| | |
| ➢ Don Juanena etxeko kirol gela: Federatuak eta jubilatuak | Dohainik |

TARIFA HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

## 2.1.5.FAGUS INTERPRETAZIO ZENTRURA BISITAK:

| | **2021** |
|---|---|
| | |
| ➢ **ZENTRURA ETA ALKIZAKO BESTE MONUMENTUETARA BISITA GIDATUAK+ Ibilbidea** | 5,00€/ Pertsonako:12 urtetik gorakoentzat |
| | |
| ➢ **ZENTRURA ETA ALKIZAKO BESTE MONUMENTUETARA BISITA GIDATUAK+ Ibilbidea** | 3,00€/ Ikastetxeak: haur bakoitzeko |
| | |
| ➢ **ZENTRURA BISITA GIDATUAK+** | Alkizarrentzat dohainik |

| Ibilbidea | |
|---|---|
| | |
| ➢ Antolatutako ibilbideak | 6,00€/ Pertsonako:12 urtetik gorakoentzat |

TARIFA HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

**2.1.6. BUZOIETAKO GILTZAREN KOPIA ETA ZERRAILA ALDATZEA: 7€**

TARIFA HAUEK ALDATZEA PROPOSATZEN DA

**2.1.6. BUZOIETAKO GILTZAREN KOPIA ETA ZERRAILA ALDATZEA: 10€**

**2.1.7. HILERRIKO ZERBITZUENGATIK TASA:**

| | 2021 |
|---|---|
| ➢ OHIKO NITXOAK | |
| Ehorzketa eta 15 urteko konzesioa | 200€+ marmola grabatu gabe |
| | |
| ➢ KOLUNBARI NITXO TXIKIAK | |
| Ehorzketa eta 15 urteko konzesioa | 200€+ marmola grabatu gabe |
| | |
| ➢ GORPUTZAK ATERATZEA | |
| Borondatezkoa edo lurretik | 200,00€ |
| | |

TARIFA HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

**2.1.8. ALKIZAKO ERRETORE ETXEKO GELA DESBERDINEN ERABILPENA**

| | 2021 |
|---|---|

| | |
|---|---|
| | |
| ➢ **4 laguneko gelaren erabilpena** | Egunean 40 euro<br>Astean 120 euro |
| | |
| ➢ **16 laguneko gelaren erabilpena** | Egunean 128 euro<br>Astean 600 euro |
| | |
| ➢ **Gela guztien erabilpena** | Egunean 250 euro<br>Astean 1.000 euro |

**TARIFA HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA**

**2.UDAL BIDE PUBLIKOEN LURZORUAN, ZORUPEAN EDO HEGALDURAN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAK EGITEAGATIKO TASA**

**2.1.UDAL KALEETAKO ZOLUA, HEGALKINA ETA LURRAZPIA PRIBATIBOKI ERABILTZEA EDO BEREZIKI APROBETXATZEA, HORNIDURA ZERBITZUA USTIATZEKO ENPRESEN ALDE**

Udal kaleetako zolua, hegalkina eta lurrazpia hornidura zerbitzua ustiatzeko enpresen alde pribatiboki erabiltzeari edo bereziki aprobetxatzeari dagokion prezioa, zerbitzu horiek gehientsuenengan edo biztanlegoaren zati garrantzitsuarengan eragina dutenean, enpresa horiek udalerrian urtero lotzen duten fakturazioko diru sarrera gordinen %1,5ekoa izango da.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2021ko irailaren 28an egindako txostena, zeinetatik ondorioztatu daitekeen aipaturiko proposamenak araubidearekin bat datozela.

Gaia azterturik Udalbatzak aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Aipaturiko proposamena akordioa bihurtzea eta beraz, azaldutako baldintza beretan onestea.

BIGARRENA.- Aurreko puntuak aipatzen dituen akordioak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, ondorioztatu daitezken erreklamazioak edo oharren efektuetarako. Horretarako dagokion iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan.

HIRUGARRENA.- Hartutako akordioak eta Ordenantzen eta beraien GEHIGARRIEN aldaketak behin-betikoak bihurtuko dira, beste akordio berriren beharrik gabe, informaziorako arauzko epea pasa ondoren inolako erreklamaziorik edo oharrik egin ez balitz. Beraz, 2022 urteko urtarrilaren 1ean ipiniko lirateke indarrean Ordenantza Fiskal eta Tasa Publikoen Ordenantza berriak.

LAUGARRENA.- 2022 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

**2022 EKITALDIRAKO ZERGA EGUTEGIA**

**1.- HOBARI ESKAERA:**

- 2022 urteko otsailaren 1etik otsailaren 28ra

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

- 2022 urteko maiatzaren 2tik uztailaren 4 arte.

3.- URA TASA:

1. seihilabetea: 2022 urteko irailaren 1tik azaroaren 2ra bitartean.
2. seihilabetea: 2023 urteko otsailaren 1etik apirilaren 3ra bitartean.

4.- ZABORREN TASA:

1.seihilabetea: 2022 urteko uztailaren 1etik irailaren 1era bitartean.
2.seihilabetea: 2023 urteko urtarrilaren 3tik martxoaren 3ra bitartean.

***BOSTGARREN PUNTUA***

**TOLOSALDEKO HILTEGI MANKOMUNITATEARI 2021 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2021eko martxoaren 23an egindako bilkuran, aho batez erabaki zutela, Mankomunitateko kide diren Udalek egin beharreko ekarpenak. Alkizako Udalari 269 euro suposatzen diolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2021 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 269 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2021ko Udal aurrekontuetako 421.431.00.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 269,00 euroko gastua onestea.

***SEIGARREN PUNTUA***

**AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2021EKO 3. ETA 4. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2021 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 8.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

-Gizarte zerbitzuak: 6.500,00 euro
-Kultura: 1.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 8.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2021 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko udal aurrekontuetako "421.230.00.01" eta "421.330.00.01" kontu sailaren kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

-Gizarte zerbitzuak: 6.500,00 euro
-Kultura: 1.500,00 euro

BIGARRENA.- 8.000,00 eurotako gastua onartzea.

***ZAZPIGARREN PUNTUA***
**I.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

*Shrabani Aranzabe zinegotzia 19.36 orduan bertaratzen da Udalbatza honetara.*

Ikusirik I.A. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen Peru Bidea kaleko 2 zenbakiko 2º-B etxebizitza, trastelekua eta garajea salgai jartzeko asmoa dutela. Etxebizitza hau Alkizako S1 sektorearen barruan tasatuak zeuden etxebizitzen artean dago.

Aipaturiko bizitza eta bere eranskinei buruz esan, administrazio baldintzako pleguetan etxebizitzen transmisioa arautzen zela, lehentasunezko erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea 30 urtetan Alkizako udaletxearen esku geratuaz.

Guzti hau ikusirik, I.A. jaunak Alkizako udaletxeari jakitera ematen dio Peru bidea kaleko 2 zenbakiko 2º-B etxebizitza, trasteleku eta garajea saltzeko asmoa duela, eta Udaletxeari aukera ematen dio lehentasunezko erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea egikaritzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Alkizako Udalak uko egiten dio, Peru bidea kaleko 2 zenbakiko 2º-B etxebizitza, trasteleku eta garajearen lehentasunezko erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideari.

BIGARRENGOA.- I.A. jaunari jakinarazi, aipaturiko etxebizitza eta bere eranskinak ezingo dituela saldu, Udalak finkatutako prezioa baino garestiago. Hau da, Udal Aholkulari teknikoak 2021urteko ekainaren 30eko txostenean finkatzen dena. Erabaki honi eransten zaio.

HIRUGARRENGOA.- I.A. jaunari jakinarazi, saltzen duen etxebizitza eta bere eranskinak Alkizako Udalarekin lotura izan beharko dutela 30 urte arte falta zaizkion urte kopuruarengatik.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri I.A. jaunari ematea.

***ZORTZIGARREN PUNTUA***
**ALKIZAKO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN OINARRIEN ONESPENA, HALA BADA**

Alkate-Lehendakari jaunak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2021-2022 ikasturterako Alkizako biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2021-2022 ikasturterako Alkizako biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

***BEDERATZIGARREN PUNTUA***
**ETXAUNBERRITIK-APAIZTEGIRA UR-HARGUNEA BERRITZEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Etxaunberritik-Apaiztegira ur-hargunea berritzeko lanak egiteko kontratua esleitzea, bertan kokaturiko hainbat baserrik urarekin arazoak dituztenez.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Ikusirik lan hauek egiteko hiru aurrekontu eskatu direla: LARUN 2012, EXCAVACIONES LASA, S.L. eta LAU HAIZETARA S.L. enpresei hain zuzen.

Aipaturiko aurrekontuak azterturik, LAU HAIZETARA S.L. enpresarena, kontzeptu guztiak kontutan izanik merkeena dela aurreikusten da.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikuluaren arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. *Obra* kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

*Obra* kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 40.000,00€ azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: LAU HAIZETARA, S.L. *enpresari,* Alkizako Etxaunberritik-Apaiztegira ur-hargunea berritzeko lanak egiteko kontratua esleitzea 7.422,80€-tako diru kopuruan (BEZ kanpo). Ordainketa 623.160.00.02 kontu sailaren kontura egingo da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri LARUN 2012, EXCAVACIONES LASA, S.L. eta LAU HAIZETARA S.L. enpresei ematea.

***HAMARGARREN PUNTUA***

**ALKIZAKO HERRI OSTATUAN AROZTEGIKO LANEN ESLEIPNEA (3 LEIHO ETA ATE BERRI BAT JARTZEA), HALA BADA**

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Herri ostatuan aroztegiko lan batzuk egitea, hau da, hiru leiho eta ate berri bat jartzea, hauek zaharrak direlako.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Ikusirik lan hauek egiteko hiru aurrekontu eskatu direla: ZURIARRAIN, SANJUANDARRA eta ERKIZIA AROZTEGIA, S.L. enpresei hain zuzen.

Aipaturiko aurrekontuak azterturik, ERKIZIA AROZTEGIA, S.L. enpresarena, kontzeptu guztiak kontutan izanik merkeena dela aurreikusten da.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikuluaren arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. *ZERBITZU* kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de*

*servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

*ZERBITZU* kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000,00€ azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: ERKIZIA AROZTEGIA, S.L. *enpresari,* Alkizako Herri ostatuan aroztegiko lan batzuk( 3 leiho eta ate bat) egiteko kontratua esleitzea 4.761,81€-tako diru kopuruan (BEZ kanpo). Ordainketa 683.933.00.02 kontu sailaren kontura egingo da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri ZURIARRAIN, SANJUANDARRA eta ERKIZIA AROZTEGIA, S.L. enpresei ematea.

***HAMAIKAGARREN PUNTUA***

**ALKIZAKO HERRI OSTATURAKO EDARIEN ERAKUSTOKIKO ARMAIRUA ETA ALTZAIRU HERDOILGAITZEZKO LAN-MAHAI BAT EROSTEKO KONTRATUA ESLEITZEA, HALA BADA**

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du, Herri Ostaturako edarien erakustokiko armairua eta altzairu herdoilgaitzezko lan-mahai bat erosteko kontratua esleitzea.

Ikusita erosketa hontarako hiru aurrekontu eskatu direla: Euskal Hotz, Comercial Hostelera del norte Vizcaya, S.A. eta MAQUINARIA Astigarraga, S.L.

Ikusita hiru aurrekontuetatik Euskal Hotz enpresarena merkeena dela.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikuluaren arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. *Hornidura* kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del*

*contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

*Hornidura* kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 6.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: EUSKAL HOTZ enpresari, Herri Ostaturako edarien erakustokiko armairua eta altzairu herdoilgaitzezko lan-mahai bat erosteko kontratua esleitzea 3.732,00€ (BEZa kanpo), **683.933.00.02** kontu sailaren kontura **"Herri-ostatua".**

BIGARRENA: Erabaki honen berri Euskal Hotz, Comercial Hostelera del norte Vizcaya, S.A. eta MAQUINARIA Astigarraga, S.L. enpresei ematea.

***HAMABIGARREN PUNTUA***
**LARRAULGO UDALAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Udalak eginiko eskaera, non azaltzen duen urriaren 3an Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa izango dela Larraulen eta bertan antolatu diren ekintzetarako 100 aulki uzteko baimena eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalari 100 aulki uztea, Larraulen, urriaren 3an izango den Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa dela eta bertan antolatu diren ekintzetako. Aulkiak hartzeko Udal langilearekin harremanetan jarri beharko direlarik.

BIGARRENA: Larraulgo Udalari jakinarazi, aulkiak jasotako egoeran itzuli beharko dituela eta hauek hautsiz gero, berriak ekarri beharko dituela.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri Larraulgo udalari ematea.

***HAMAHIRUGARREN PUNTUA***
**BESTE BATZUK**

***Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.***

**13.1. ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN, APAIZ ETXEAN KOMUN BERRI BAT EGITEKO ESLEIPENAREN ALDAKETAREN ONESPENA**

Ikusirik 2021eko maiatzaren 4an eginiko Udalbatzarrean, Alkizako Erretore etxean, apaiz etxean komun berri bat egiteko lanak Iraugar Igeltseritza, S.L. enpresari esleitu zitziola.

Ikusirik, lanak egiten hasi zirenean, lurra altxatzerakoan, izugarrizko zulo bat azaldu zela. Lanekin jarraitzeko aipaturiko zuloa bete egin behar zen komuneko zoru berria jarri ahal izateko.

Aipaturiko lanak bukatu ondoren, Iraugar Igeltseritza, S.L. enpresak, ezustekoen faktura bat aurkeztu du, guztira 5.374,15 eurotakoa.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Erretore etxean, apaiz etxean komun berri bat egiteko lanen ondorioz sortutako ezusteko lanak onestea.

BIGARRENA: Iraugar Igeltseritza, S.L.-k aurkezturiko 210023 faktura, hau da, ezusteko lanen faktura, onestea, bere zenbatekoa 5.374,15 eurotakoa izanik eta bere ordainketa egin dadin agintzea 622.150.00.02 kontu sailaren kontura.

***HAMALAUGARREN PUNTUA***
**MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19.50etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

IDAZKARIAK

ALKIZAKO UDALA (Gipuzkoa) - IDAZKARITZA -